



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

KIMIKA
FAKULTATEA
FACULTAD
DE QUÍMICA

Kimika Fakultateko irakaskuntza-ikaskuntza plana: 2021-2022 ikasturtea (Eranskina: erabateko presentzialtasunera itzultzea (2021eko urria))

2021-2022 ikasturteko irakaskuntza eta ikaskuntza planifikatzeko orientabideak izenburuko agiriak, Gobernu Kontseiluak 2021eko apirilaren 29an onartutakoak, 2021-2022 ikasturteko plangintza egiteko berrikusitako jarraibideak eman zizkien ikastegiei. Horretan oinarrituta, Kimika Fakultateak 2021-2022 ikasturteko irakaskuntzara egokitzeko plana prestatu eta abian jarri zuen, eta plan horren arabera hasi da irakasten ikasturte honetako lehenengo lauhilekoan.

COVID-19 pandemiak eragindako osasun egoeraren hobekuntza nabarmena dela eta, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak agindu du Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateetako presentzialtasun osoa berreskuratzeko, eta horrek esan nahi du gure ikasgeletako edukiera aldatu egingo dela eta Kimikako Graduako eskola teorikoak goizean eman ahalko direla.

Beraz, urriaren 13tik aurrera, 1., 2. eta 3. mailako eskola teorikoak goizeko bederatzietan hasiko dira:

Hona nola banatuko diren ikasgelak:

- 1. maila, euskaraz: 1. ikasgela
- 1. maila, gaztelaniaz: 4. ikasgela
- 2. maila, euskaraz: 2. ikasgela
- 2. maila, gaztelaniaz: 2. ikasgela bis
- 2. maila, ingelesez: Bergara mintegia
- 3. maila, euskaraz: 3. ikasgela
- 3. maila, gaztelaniaz: 6. ikasgela
- 3. maila, ingelesez: 7. ikasgela

Bigarren mailako laborategiko praktiken ordutegiak ere aldatzen dira, eta arratsaldeetan egingo dira.

Laugarren mailako eskolak arratsaldean emango dira, orain arte bezala.